

BEZERO KANALAK



Jokuz Blai-en salmenta, denda ezberdinetan egingo da, bazkideen dendetan, baita, gure tailerreko denda txikian, bertan arreta eta harremana gertukoa eta enpatikoa eskainiz. Denda ezagutarazteko, erreminta nagusia sare-sozialak izango dira. Gure denda, tailerraren zati txiki batean abilitatua egongo da.

Beraz, bezero askorentzako lehenengo kontaktua interneteko anuntzioak eta sare sozialetan iragarkiak izango dira.

Iragarki hauetan jendeak gure produktua erosteko deskontu txiki bat eskainiko dugu.

Iragarki hauek jartzeko, sare sozialeko jende famatuekin kontaktuan jarriko ginateke, hauek, web horrietan edo sare sozialetan iragarkiak jartzeko.

Lehen kontaktua eta gero bezeroekin kontaktatzeko moduak:

- **Email:** Edozein zalantza edo kezka argitu ahal izateko, Jokuz Blai-en gmail-era idatzi ahal izango dute, hemendik bezeroarekin kontaktu zuzenago bat edukiko dugu. Bestalde, korreoz gure bazkideekin kontaktuan jarri ahal izango dugu. 
- **Instagram:** Instagrameko kontua ere izango dugu, bertan bezeroekin kontaktua ere mantendu ahal izateko, eta gazteengandik gertuago egoteko. Horretarako, argazkiak igo eta interakzio ezberdinak izango ditugu instagram kontuaren bidez. 

- **Twitter:** Sare sozial honetan ere, Jokuz Blai-ek profil bat izango du. Bertan ere bezeroekin informazioa elkarbanatu ahal izateko eta beste bezero mota batzuegandik gertuago egoteko. 